

Udal gobernuko jaun/andere agurgarriak,

BATERA zaintza sare herritarraren izenean idazten dizuegu, zuekin bilera bat burutzea proposatzeko asmoz. BATERA Covid 19 birusak eragin duen egoera kritiko honetan, sortu zein larriagotu diren zaintza beharrei erantzuteko egongo ziren beharrez kezkatuta, herritar batzuk sortutako egitasmoa da. Komunitate baten parte garen heinean, komunitate horrek dituen zaintza beharrak, modu kolektiboan asetzeko ardura daukagula ulertzen dugu.

Esan bezala, beharrezkotzat jotzen dugu zuekin biltzea, hurrengo kontuen inguruan hitz egin ahal izateko:

- Alde batetik, udaletxetik eskaintzen diren zerbitzu sozialekin nolabaiteko koordinazioa mantentzeko aukerak baloratu nahiko genituzke. Izan ere, BATERA zein zerbitzu sozialen helburua konpartitua delakoan gaude: herritar ororen zaintza beharrei segurtasuna bermatuz erantzutea, are gehiago, zaintza beharrak eta horiek gauzatzeko oztopoak biderkatzen ari direnean. Jakin izan dugun bezala, osasun langile, zerbitzu sozialetako langile zein udaltzain batzuk, herritarrek BATERA zaintza sarera bideratzen ari dira, bertatik herritarrek dituzten zaintza beharrei erantzuteko baliabiderik ez dagoenean. Beraz, ikusita elkarlanerako jarrera dagoela zerbitzu sozialetan dauden langileek partetik eta herritarren zaintza lanak bermatzeko hutsuneak egon badaudela, ezinbestekoa jotzen dugu, zuekin zuzenean harremanetan jartzea koordinatzeko egon daitezkeen aukera ezberdinak arakatzeko.
- Bestetik, Gasteizen dauden zaintza beharren eta horiei aterabidea emateko egun eskuragarri ditugun zerbitzuen inguruko analisia eta argazkia konpartitu nahiko genuke. BATERA zaintza saretik, egun hauetako esperientzia eta zerbitzu sozialekin egindako harremanaren bitartez, egoeraren analisia osatu dugu. Zuekin konpartitzea gustatuko litzaiguke batak eta besteak izan dezakegun informazioa osagarritu eta modu horretan, egon daitezkeen hutsuneak identifikatzeko, hauei erantzuna emateko asmoz.
- Azkenik, aipatu nahiko genuke komunitateak betetzen dituen ezinbesteko lanak segurtasunez betetzea oinarritzko irizpidea dela guretzat. Hori dela eta, jakinda instituzio publikoek dituzuen baliabide materialak gureak baino dimentsio handiagoa dutela, horien berri jakin nahiko genuke. Uste baitugu, gure arteko kooperazioa esfera guztietara zabaldu behar dela, bederen herritar guztion zaintza beharrak asetu nahi baditugu.

Esan gabe doa, herritar guztion osasuna zaintzeko segurtasun neurri bezala, bilera telematikoki burutuko genukeela. Bizitzen ari garen egoera larria da, oso. Horregatik eskatzen dizuegu astelehenean, beranduenez, erantzutea gonbidapen honi. Izan ere ondoren agendak komunean jarri beharko genituzke eta uste dugu prozesua azkartzea ezinbestekoa izango dela koordinazio egokia izan nahi badugu.

Zuen erantzunaren zain,

BATERA Zaintza Sare Herritarra.

Estimadxs señorxs del Gobierno municipal,

Os escribimos en nombre de la Red de Cuidados popular BATERA, con el fin de proponeros una reunión. En una situación crítica como la provocada por el virus Batera Covid 19, se trata de un proyecto creado por unxs vecinxs preocupadxs por las necesidades de cuidados que han surgido o se han agravado. Como parte de una comunidad, entendemos que tenemos la responsabilidad de satisfacer colectivamente las necesidades de cuidado que tiene dicha comunidad.

Dicho esto, consideramos necesario reunirnos con ustedes para poder hablar de las siguientes cuestiones:

- Por un lado, nos gustaría valorar las posibilidades de mantener una cierta coordinación con los servicios sociales que se ofrecen desde el Ayuntamiento. De hecho, creemos que tanto el objetivo de BATERA como el de los servicios sociales es compartido: responder a las necesidades de cuidado de toda la ciudadanía garantizando la seguridad, máxime cuando las necesidades de cuidado y los obstáculos para llevarlas a cabo se están multiplicando. Como hemos sabido, tanto el personal sanitario, como el personal de los servicios sociales, como la policía municipal, están destinando a la ciudadanía a la Red de Cuidados popular BATERA, cuando desde ella no hay recursos para atender las necesidades de cuidado que tienen lxs vecinxs. Por lo tanto, a la vista de la actitud de colaboración que existe entre el personal de los servicios sociales, y de la existencia de lagunas para garantizar el cuidado de la ciudadanía, consideramos imprescindible contactar directamente con ustedes para explorar las diferentes posibilidades de coordinación.
- Por otro lado, nos gustaría compartir el análisis y la fotografía de las necesidades de cuidados existentes en Gasteiz y de los servicios disponibles para darles una salida. Desde la red de cuidados BATERA, a través de la experiencia de estos días y de la relación con los servicios sociales, hemos completado el análisis de la situación. Nos gustaría compartir con vosotrxs la información que podamos y podáis tener y así identificar posibles lagunas con el fin de dar respuesta a las mismas.
- Por último, nos gustaría señalar que la seguridad en el cumplimiento de las tareas imprescindibles que cumple la comunidad es un criterio básico para nosotros. Por ello, siendo conscientes de que los recursos materiales de que disponen las instituciones públicas tienen una dimensión superior a la nuestra, nos gustaría saber de ellos. Porque creemos que la cooperación entre nosotrxs debe extenderse a todas las esferas, al menos si queremos satisfacer las necesidades de cuidado de todxs lxs vecinxs.

Evidentemente, como medida de seguridad para preservar la salud de todxs, llevaríamos a cabo la reunión telemáticamente. La situación que estamos viviendo es muy grave. Por eso les pedimos que respondan a esta invitación el lunes, a más tardar. Porque después deberíamos poner en común las agendas y creemos que acelerar el proceso será imprescindible si queremos tener una coordinación adecuada.

A la espera de vuestra respuesta,

Red de Cuidados Popular BATERA